



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Goldfinger

Ados egongo gara: gaizkilearen karismak egi-ten du film bat handi. Heroiak, superheroiak, espiak, detektibeak... parez pare duen antagoinistaren mailara iristea da protagonista ororen helburua, hura garaitzea, tramari dagokionez lehenik baina baita presentziari eta karismari dagokienez ere. Lehenengoa ia beti lortzen dute, kanon klasikoak hala dio-eta; bigarrena... ez horrenbeste. Nahiko luke Batmanek Penguin edo Jokerren maila, edo James Bonden bere antagonista zerrenda luzearena, edo Sandra Bullock eta Keanu Reevesen Dennis Hopperrena –bai, “Speed”, ez nazazue epaitu–.

Sortzaileek gertuko ezagunengana jotzen dute maiz inspirazio bila eta hala egin zuen antza Ian Flemingek James Bonden antagonista zen Auric Goldfinger asmatu zuenean. Gustura geratuko zen Fleming pertsonaiarekin, liburuari gaizkilearen izena jar- tzea erabaki bazuen.

“Goldfinger” 1958an idatzi zuen Ian Fleming londrestar petoak, hiria izu- garri azkar aldatzen ari zen garai ba- tean. Bigarren Mundu Gerra amaitu- ta, berreraikuntza garaia zen eta hiria ulertzeko modua ez zen gerra aurreko berbera. Baldintzak (ekonomikoak, sozialak, teknikoak, politikoak) ezber- dinak ziren eta, halabeharrez, emaitza ere bai. Bogan zeuden mugimendu modernoak –zehazki, haren aldaera brutalista–, eta paisaia viktoriar idili- koan hormigoizko eraikin andana ha- si zen azaltzen pixkanaka, etenik gabe 80eko hamarkada iritsi arte. O, That- cher.

Eraikin hauek ez ziren denen gustu- koak eta ez ziren, garbi dago, Fle- mingen gustukoak. Urte batzuk lehe- nago, 1939an, arkitekto gazte batek hiru etxebizitzako bloke moderno bat eraiki zuen idazleak gaztaroa pasa zuen Hampstead auzoan, Londres ipa- rraldean. Materialez eta eskalak bai, baina formek eta lengoaiak ez zuten zerikusirik inguruan ordura arte erai-

kitako arkitekturarekin. Gehiegitxo, Fleming kontserbadorearen iduriko.

Diotenez, Flemingi golfean ari zela aipatu zioten arkitekto hungariar judutar komunista gazte hura, ge- rra bukatu eta berehala Britania Handiko Alderdi Komunistaren egoitza eraiki zuen marxista, haur eskolak aurrefabrikatutako hormi- goiarekin egitera ausartu zena. Ian Fleming 1964an hil zen eta eskerrak, gaizkileak ez baitzuen bere *modus operandi*-a aldatu: 1967an Balfron Tower dorre brutalista eraiki zuen eta 1972an bere obra famatuena bilakatu den Trellick Tower, Londres brutalis- taren ikur nagusietakoa. Eraiki zituen etxebizitzak, dendak, eskolak, uniber- tsitateak, dorreak, bai eta aitortza pu- blikoa jaso ere, bere lanagatik.

1974an Hapsteadeko etxebizitza on- dare historiko izendatu zuten, 1996an Balfron, eta, bi urte geroago, 1998an, Trellick. Flemingi falta zitzaiona, onarpen sozialdun gaizkilea. Bera zen Goldfinger, Erno Goldfinger. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI